

■ «SAKABI» SOINU JOLE HANDIA HIL DA AZPEITIAN

FAUSTINO Azpiazu Salegi «Sakabi» soinu-jolea maiatzaren 27an hil zen, Azpeitian. Sakabi baserrian jaio zen duela 78 urte, Egañazpirekin batera trikitixa munduko bikote historikoa osatu zuen lasturtarra (Deba). 14-15 urterekin hasi zen soinua jotzen, Jose Maria Aranberriren eskutik, eta Elgetarekin jarraitu zituen ikasketak. Gerra tokatu zen tartean, eta hantxe bukatu ziren ikasi beharrekoak, baina, ondoren, Elgeta bera etorri zitzaion baserrira, eta hamabost egunetan atzeratutako guztiak erakutsi zitzaion, hamar pezeta eta egunero bi pururen truke. Gipuzkoa oso-ko herri eta auzoetan zehar hasi zen segidan, hamaika festa eta erromeria girotuz, Elgeta berearekin, edo Auntxa, Arbe. Intxauzabal eta beste askorekin batera. Egañazpi pandero jolearekin lotu zen arte. 1936an bi disko txiki kaleratu zituzten Columbiarekin, «Trikitixa de Azpeitia» izenburupean. Hurrengoa, beren lanik ezagunena izango zena, 1975ean egin zuten: «Sakabi, Egañazpi eta trikitilariak». Trikitixa de Zumarragarekin ere beste grabazio bat plazaratu zuen Sakabik. Txapelketetan ere aritu ziren, eta honela, 1970ean txapela lortu zuten. Urte berean, Lehen Trikitilari Eguna egin zen Usurbilen, eta bertan, omenaldia eskaini zitzaion bikote handiari. Esteban Larrañaga Trikitilari Elkarteako lehendakari ohiak gogoratzen duenez, *«lehendabiziko belaunaldiko erreferente nagusia eta munstro bat izan dela iruditzen zait»*.